

FUNTSEZKO JARDUERAK

Funtsezko jarduerak proiektuaren negozio-ereduak funtziona dezan egin beharreko ekintzak dira. Horien artean, ekoizpena, arazoak konpontzea eta plataforma-jarduerak daude, besteak beste. Jarduera guztiak ez dira gure esku egongo, batzuk beste enpresa batzuen gain utz daitezkeelako, eta aukeraketa hori beharren eta ahalmenen arabera egingo da.

Ekoizpenari dagokionez, enpresa-hornitzailea izango dugu, alkoholimetroa den produktu zehatza guretzat soilik (patentatua baitago) fabrikatuko duena, gure nahien eta guk ezarritako ezaugarrietan oinarrituta. Ondoren, produktu hori auto-ekoizle enpresen salgaietan (autoak, hain zuzen ere) instalatuko dugu guk.

Arazoa konpontzearen zeregina, arazoaren etorlekuaren arabera banatuko da. Hutsegitea produktuaren ekoizpenetik badator, haren enpresa-ekoizlea hartuko du ardura, bera baita hura ezagutzen duena. Arazoa, berriz, instalaziotik badator, *Alcohol Free* enpresa izango da hura konpontzeko beharra izango duena.

Hala ere, hainbat jarduera gure baitan geratuko dira; hala nola, administrazioaren kudeaketa edo know how delakoarekin lotutako guztia. Know how-k ezagutzari egiten dio erreferentzia, eta gure enpresaren oinarriak jasotzen dituela, pribatutasunean mantentzea behar da.

